

Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1997ko maiatzak 8 • 121. zka.



Kontxi Otxoa:

35 urte esnea saltzen

Euskararen eguna eta Ojala-zelai eguna ■ Juan Mari Irigoien idazlea

ARRASATE ARETXABALETAKO 2. HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

Ikasketak	Non	Irteerak-Ondorengo ikasketak
DBH 1. zikloa (1. eta 2. maila) 2. zikloa (1. maila)	Arrasateko DBHko Ikastetxea	4 DBH
DBH 1. zikloa (1. eta 2. maila)	Arrasateko Institutua	Batxilergoak Erdi mailako Heziketa Zikloak
IEE 1. Zikloa (2. maila)	Arrasateko institutua Aretxabaletako Institutua	Batxilergoak Erdi mailako Heziketa Zikloak
IEE 1. Zikloa (2. maila) (Batxilergo Tekniko Industriala)	Aretxabaletako Institutua	Unibertsitatea Goi Mailako Heziketa Zikloak
BATXILERGOAK Teknologikoa / Zientifikoa / Humanistikoa	Arrasateko Institutua	Unibertsitatea Goi Mailako Heziketa Zikloak
LHII Automozioa: Autoen Mekanika eta Elektrizitatea (2. eta 3. maila)	Aretxabaletako Institutua	Lan mundua: Auto-mekanikaria, Auto-elekttrizista, Diesel Ekipoen mekanikaria, Nekazal makinarien mekanikaria
Erdi mailako Hezkuntza Zikloa AUTOEN ELEKTROMEKANIKA	Aretxabaletako Institutua (2.000 ordu -2 ikasturte + praktikak)	Lan mundua: Auto-mekanikaria, Auto-elekttrizista, Diesel Ekipoen mekanikaria, Nekazal makinarien mekanikaria
Erdi mailako Modulua ERIZAINTZA LAGUNTZAILEA	Aretxabaletako Institutua (1.400 ordu - ikasturte 1 + praktikak)	Lan mundua: Erizain Laguntzailea, Oinarrizko Laguntzetarako Laguntzailea, Etxe-Erizaintza, Odontologo Laguntzailea
Goi Mailako Modulua SISTEMA AUTOMATIKO ETA PROGRAMA-GARRIAK	Aretxabaletako Institutua (1.400 ordu - ikasturte 1 + praktikak)	Lan mundua: Sistema Elektroniko eta ekipamendu Industrian Erdi Mailako Teknikaria

**Zure etorkizuna
eskola publikoan**

BATXILERGOAK

- Teknologikoa
- Zientifikoa
- Humanistikoa



Arrasateko Institutua

HEZKUNTZA ZIKLOAK

- Autoen elektromekanika
- Erizaintza laguntzailea
- Sistema automatikoetan programagarriak



Aretxabaletako Institutua

EUSKARAZKO IKASKETAK
D eredua - MAILA GUZTIETAN
KALITATEZKO
IRAKASKUNTZA

Orientazio Departamentua

**Arreta pertsonalizatua ikasle eta gurasoentzat
Azpiegitura egokia**

Bi gimnasio; laborategia: Fisika-Kimika (2) - Zientziak (2); bost informatika gela; hiru ikusentzuteko gela; sei teknologia gela; hiru liburutegi; jangela eta garraioa; baliabide egokiak; irakasle titulatuak eta prestatuak.



San Isidro eguna ospatzen duzu?

Fermin Idigoras

(Iturriotz baseria, Larriño)

Aspaldian ez dugu San Isidro eguna ospatu. Lehen ospatzen zen, baserritar guztiok mezetara joaten ginen kalera eta gero pelota partiduak egoten ziren. Bazkaria Taberna Berrikoan egiten zen.



Pilar Urteaga

(Mendikurtza, Korueta)


Oraindik ez dakigu ospatuko dugun. Beste urte batzutan bazkari bat eginez ospatu izan dugu, batzutan etxean beste batzutan kalean.



Markos Garciaetxabe

(Antxustei baseria, Etxeberri auzoa)

Lehen gazteagoa nintzean beti ospatzen genuen, kalera jeisten ginen. Aspaldian ez naiz joan. Etxean baserritarren eguna dela eta zoezer berezia egoten da.



Pedro Kortabarria

(Torrena baseria, Azatza)

Etxean ospatzen dugu bazkaria eginez. Lehenago kalera jeisten zen baina ohitura hori galdu zen. Meza nagusia egiten zen kalean, gari buruak ipinita egoten ziren. Prozezioa ere egiten zen.



e s k u t i t z a



Bi egunetan bi hilketa

Apirileko albisteei begirada bat ematen badiegu argi eta garbi ikus dezakegu Espainiar ejerzitoko indarrek bi gazte erahil dituztela bi egunetan.

Bata Candanchun, mozkoturik zegoen teniente batek kafetegian zegoen gazte bati tiro bat eman zion bularrean. Teniente honek orain dela urte batzuk jaso zuen urte beteko zigorra arrazoi berdinagatik, gartzelara sartu beharrean fidantza ordaindu eta zigor bakarra urte beteko soldata ez kobratzea izan zen.

Bestea Burgoseko kuartelean bi soldaduen arteko liskar batean, bat labankada baten zauri bat zuela eraman zuten eritetxe militarra. Han derrigor egon behar zuen guardiako erizaina falta zela eta odolusturik hil zen gaztea.

Bestalde urteko sasoi honetan estatu osoko familia guztiak azienda zergak ordaintzera (eta gutxitan kobratzera) behartuta daude.

Ordaindutako diru honetatik %5a automatikoki ejerzito Espainiarrarentzat da, armamentu zein beste zentzugabeko gastu batzuetarako.

Herritarrak %5eko kopuru hori desbideratzeko aukera dauka OBJEZIO FISKALA eginez. Honekin, eliza, HIES ekimena edo beste edozein talde edo mugimendu kultural batera bidera dezake.


Ejerzito Espainiarreko urteko aurrekontua: 1.860.132.000.000 pezeta.

DIRU HONEKIN GAUZA ASKO EGIN DAITEKE!!!

EGIZU OBJEZIO FISKALA!!!

EJERZITO ESPAINIARRA HITZALTZEA!!!

**ATXABALTAKO TALDE
ANTIMILITARISTA**



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria




Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorobarrutia. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Arantzazu Zuazabertia, Inma Migel, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Harkaitz Cano eta Garikoitz Berasaluze poesia emanaldian

Literatur astean hainbat idazle ezagun pasatu zen Kurtzebarri eskolatik

Apirilaren 23tik 30era bitartean literatur astea ospatu zuten Kurtzebarri eskolan. Irakurketaren inguruan hainbat ekintza burutu zuten: irakur maratokia, idazleekin solasaldiak, ipuin kontaketak, poesia emanaldiak...

Idazle ezagunek ere hartu zuten parte literatur aste honetan, horien artean: Mari Asun Landa, Diana Lindsay, Yolanda Arrieta, Juan Cruz Igerabide, Harkaitz Cano, Garikoitz Berasaluze...

Harkaitz Cano eta Garikoitz Berasaluzek eskainitako poesia sorta bat

Urtarrila:

elurrak margotutako koadroak zintzilika mila.

Otsaila:

inauteriz mozorrotutako neguaren leihatila

Martxoa:

udaberriaren bidean poliki doan astoa.

Apirila

eguzkiarekin batera hau da euri pila!

Maiatza:

hainbat lorek osatutako koloretako baratza.

Ekaina:

azterketak sutan erre eta gora dultzaina

Uztaila:

hondartzan zabaldua berriro toaila.

Abuztua:

izarren hautsa gauean hustua.

Iraila:

oporren azken txanpan doan trainerila.

Urria:

udazkenak hostoak jaso ditu ia.

Azaroa:

euria eta hotza itzultzen den aroa.

Abendua:

Olentzero dator menditik urteek moteldua.

“Andramaixetarako ideiak”

□ **Jaietan txosnak ipini nahi dituzten taldeek lehenbailehen abixua eman behar dute kultur etxean**

Udaletxeko kultura sailak herriko jaietarako ideiak emateko hainbat orri jarri zituen herriko komertzio eta tabernetan. Papelotan asko idatzi du jendeak, horietako asko lelokeriak. Ideia batzuk honako hauek izan dira: goizaldera txokolatada txurroekin, rock kontzertua (Latzen, Etsaiak, S.A., Dr. Deseo, Su ta gar, Maixa eta Itziar, Gozategi...), karaokea, tarta txapelketa, xake txapelketa, reggae jaiak, kantzontzilo eta kulero karrera...

Andramaixak San Migeletara aldatzea ere aipatzen zen eta baita Zumaiako banda kentzearena ere. Dena dela, ideiak jai batzordean eztabaidatuko dira eta bertan hartuko dira azken erabakiak.

Bestalde, kultura sailak jakitera eman duenez, Andramaixetan txosnarik jarri nahi duten taldeek lehenbailehen abixua eman beharko dute udaletxean.

Gaixoen eguna

Maiatzaren 3an Gaixoen eguna ospatu zen 7,30etako eukaristian. berrogeitamar bat gizon-emakumek olioduraren sakramentua jaso zuten. Aretxabaletan sakramentu hau taldean bilduta eman den lehen aldia izan da. Askok heriotzarekin lotzen dute sakramentu hau baina egia esan, aspaldi batean kristauen artean gaixo zeudenekin egiten zen. Gero hamabost bat gisalditan heriotzarekin erlazonaturik egon da.

Gaixoen eguna Pasko aldiaren seigarren domekan ospatzen da. Sakramentu hau gaixo edo adinean aurrera joanda daudenek har dezakete. Une latzenetan ere Jainkoa ondoan dagoela adierazten du sakramentu honek.

Ofiindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako okina

**ZARAIA
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA

Tfno 714345

Bazkari eta afariak

ERRETEGIA

MENDIOLA

Astelehenetan itxita


ESKORIATZA

Arrasate eta Aretxabaletako Institutoek bat egin dute

Bat egin dute Arrasate eta Aretxabaletako Institutoek. Zentro bakarra osatuko dute baina bakoitzak bere egoitza eta autonomia izango du. Elkarketaren helburua, eskaintza publikoa sendotu, kalitatezko hezkuntza eman eta hezkuntza publikoa berrantolatzea izan dira.

Bat egite honek aldaketak ekarriko ditu bi zentruetan: Arrasateko Institutoak batxilergoa eskainiko du, eta Aretxabaletakoak heziketa zikloak.

Modu honetan, ikasleek Derri gorrezko Bigarren Hezkuntza bukatzen dutenean (16 urte), Arrasateko Institutuan, batxilergoko hiru adar egin ahal izango dituzte: natur eta osasun zientziak, gizarte zientziak eta teknologikoa. Aretxabaletakoan berriz, erdi mailako heziketa zikloak: ibilgailuen eletra-mekanika, erizaintzako zaintza osagarriak eta soldadura eta galdaragintza. Aretxabaletakoak gainera, 18 urtetik



Heziketa zikloez gain langabetuendako edo langileen birziklapenera zuzendutako formakuntza ez arautua ere eskainiko da Aretxabaletako institutoan

gorakoendako goi mailako heziketa zikloa ere eskainiko du: galdaketa eta publimetalurgia bidezko produktzioa, ingurugiro kimika eta automozioa.

Eskaintza honez gain, langabetuendako edo langileen birziklapenera zuzendutako formakuntza ez arautua ere eskainiko da Aretxabaletan. Langabetuentzako esaterako datorren ikasturtean "mekanizatu", 1000 orduko ikastaroa jarriko da martxan.

Heziketa zikloen barruan eskaintzak desberdinak izango dira, baina beti ere, bailarako enpresa eta zerbitzuen beharrei erantzutea izango da helburua.

Antolaketa hobea

Pablo Txintxurreta, Aretxabaletako Institutoko zuzendaria, baikor agertzen da elkarketa honen aurrean. "Etorkizunera eta baita bailarari begira ere antolaketa hau hobea izango dela uste dugu. Ikasleentzat eskaintza haundiagoa izango da eta zentru bakoitzeko eskaintza espezializatuagoa". Era berean, bi ikastetxeetako ekipamendu sarea eta lan taldea ere elkartu egingo direnez, errekurtsoak ere hobeto antolatuko dira.

Elkarketa datorren urtean sartuko da legez indarrean eta horretarako batzorde bat eratu da zentro berria antolatzeko.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18
Aretxabaleta

PAGALDAI
Opari denda

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA



Esko Sport

Intxaurtxueta, 5 ☎ 71 52 96
ESKORIATZA

KIROLDENDA

Egunero kiroleko moda,
beti ere aurreneko marketan

Larunbat arratsaldetan
zabalik



Ekitaldi guztiak Iturrigorri frontoian egin ziren eguraldi txarragatik

Eguraldi kaxkarra baina giro polita dantzari egunean

Deba Garaiko hainbat herritako dantzariak gurean izan ziren apirilaren 27an. Eguraldi txarra zela eta ekitaldi guztiak Iturrigorri frontoian egin ziren. Hala ere, umorea ez zuten falta izan dantzariak eta honi esker giroa alaitzea lortu zuten.

Ikuskizun polita eskaini zuten, Euskal Herri osoko dantzak dantzatzuz: Agurra, Bizkaiko makil dantza,

Luzaideko makil dantza, Txerri dantza, Azkaindarra... Hauez gain hain ikusgarriak diren dantza zuberotarrak ere eskeini zituzten.

Eguraldiak batere lagundu ez arren, eguna ondo joan zela adierazi dute antolatzaileek. Kurtzebarri eskolan izan zuten bazkaria eta egun goibelari umore onez begiratzen jakin zuten dantzari egun honetara hurbildu ziren guztiak.

14 eskoletako zuzendari kataluniarrak izan dira

Almenen

Apirilaren 28tik 30era bitartean kataluniako 14 eskola desberdinetako zuzendariak Euskal Herriko hiru zentro bisitatzen izan ziren: Lauron, Gasteizen eta Almenen. Asteazkenean Almenera etorri ziren eta bertan, Almen garatzen ari den hainbat proiekturen inguruko esperientzia ikusteko eta jasotzeko aukera izan zuten: haurrentzat filosofia proiektua, hezkuntz proiektuaren garapena, informazio iturrien eta dokumentazio tekniken erabilpenerako proiektua...

Proiektu hauen inguruan interesa erakutsi zuten kataluniarrek eta urria aldera egonaldi luzeagoko beste bisitaldi bat egiteko asmoa dute proiektuak hobeto ezagutu ahal izateko.

Herri bazkaria Euskararen egunean

Maiatzaren 17an egingo den Euskararen egunerako herri bazkaria antolatu du Loramendi elkarteak. Bazkaltzeko, patatak errioxar erara, oilasko erreka eta euskal pastela egongo dira. Prezioa 1.600 pezetakoa da eta Arlutz edo Loramendi lokalean izena eman beharko da maiatzaren 12a baino lehen. Bazkal ostean Erramun Martirikorena, iparraldeko kantaria eta trikitilariak izango dira.

LOGOPEDIA ZENTRUA
ARRASATE

- HIZKUNTZ-ARAZOAK
- HIZKETA ARAZOAK
- AHOTS ARAZOAK
- IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 - ARRASATE

**T
X
i
L
A
R
R
A**

ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA

JOSE MARI
bodegaia

- < Eguneko menua
- < Bataioak
- < Jurnartzeak

Nafarroa, 6 • Tfnoa: 79 20 45
ARETXABALETA

Berrikuntzak
MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparragire, 4 Tfnoa.79 21 24

EGUZKIGRAF
inprimategia

ARETXABALETA

Industrialdea F-0-4
Tfnoa: 791844
Faxa: 792941

Ekintza ugari Euskararen egunean

Maiatzaren 17an ospatuko den Euskararen eguna ekintzaz beteta azaltzen zaigu. Egun osoan zehar hainbat ekitaldi egingo dira Berbari hitzarmeneko talde, elkarte gastronomiko eta Loramendi euskara elkartearen eskutik.

Goizeko 7etan II. Gorriña Memoriale egingo da, Aretxabaletako udaletxe zaharretik irten eta Aizkorriraino joan-etorria eginez.

Eguerdiko 12etan kanpai jotze mota desberdinen ekitaldia entzungo da: hil kanpaiak, su-kanpaiak... Honekin batera Aretxabaletako Akordeoi Orkestra ere kalean zehar ibiliko da. Bitartean Durana kalean elkarte gastronomikoetakoak fin ibiliko dira, bakailoa pil pil erara gertatzen. Iaz bezala, sagardoa eta gazta dastatzeko aukera ere izango da Durana kalera hurbiltzen direnentzat.

Ondoren lasai-lasai jarri eta bazkaltzeko ordua iritsiko da. Herri bazkaria Durana kalean egingo da.

Arratsalderako ere egitarau zabala antolatuta dago: 4etan, haurrentzako jokuak eta elkarte gastronomikoen arteko Mus txapelketa Mitarte plazan. 4,30etan aldibereko xake partidak Ezkutu tabernan. Eta honekin batera, kirola eta zailtasunak parekatuz txapelketa desberdinak egingo dira. 6etan, Loramendi dantza taldearen ekitaldia Durana kalean eta jarraian Larrin dantza. 7,30etan emakumeen



Herri bazkaria antolatuta dago Euskararen egunerako

arteko II. Bolo txapelketa. Gaueko 10,30etatik aurrera berriz, Txatunga eta Benbe eta Bergarako Kukuma taldearekin Batukada (tantanak, kongak, kunbiak...)

Egun osoan zehar, okila taila elkarte, Margo lagunak eta Bustintxo keramika taldearen erakusketa egongo da Loramendi elkarte. Hiruatx taldekoen erakusketa, berriz, Durana kalean. Talde Antimilitaristakoek ere euren ekitaldia egingo dute egun honetan. Almen kirol elkarteak berriz, gutxitu fisikoen arteko olinpiadak antolatu ditu eta hau Almen ikastolan izango da.

Guzti hau esan ondoren, ondo pasatzea esatea besterik ez da gelditzen.

Otala-zelain erromeria

□ Udalak mahaiak jarriko ditu bertan bazkaldu ahal izateko



Otala-zelai eguna maiatzaren 18an ospatuko da. Udaletxeko kultura sailak, jai batzordearekin batera, hainbat ekitaldi antolatu ditu. Goizerako animaliekin jokuak eta herriko akordeoilarien emanaldia antolatuta daude. Iaz bezala aurten ere bazkari herrikoia egingo da, eta horretarako antola-

tzaileek mahaiak eta aulkiak jarriko dituzte, bakoitzak norbere bazkaria eramanez. Arratsaldean sokatira txapelketa, Loramendi dantza taldearen dantza saioa eta ondoren musika egongo da.

Animatu beraz, bazkaria hartu eta egun eder bat Otala-zelain pasatzera.



Lubia

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE

TABERNA
ARLUTZ
MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

Juan Mari Irigoien

“Mendeetan atzera joandako liburu bat idaztea daukat buruan”


Donostiako Altza auzoan jaioa, gaur egun ere bertan bizi da Juan Mari Irigoien idazle ezaguna. Gaztetan Sanse taldeko kapitaina izan zen. Gero Injeneritza ikasketak burutu zituen baina injeneritza lanetan ez da inoiz aritu. “Karreran nengoela gero eta garbiago nuen idazle izatea nahi nuela. Hala ere, Injeneritza ikasketak bukatu nituen eta ez naiz ikasitakoaz damutzen, hartatik ere zerbait ikasi nuen eta”.

• **Juan Mari, nola sortu zitzaizun idazteko afizioa?**

Etxean bazegoen literaturarekiko joera. Aita herriko medikua zen eta asko irakurtzen zuen. Gaztetan poema batzuk idatzi nituen, hasierako haiek erdaraz. “Hutsetik esperantzara” poema bilduma Iruneko lehiaketara aurkeztu nuen eta saria atera bertan. Honek animatu egin ninduen eta poliki-poliki gero eta gehiago idazten hasi nintzen.

• **“Hutsetik esperantzara” izan zen idatzi zenuen lehen liburua. Gaur egun zein duzu zuk idatzitako liburuetatik gustokoena?**

Hori ezin dezaket esan, liburu bakoitzak bere berezitasuna du. Nire libururik arrakastatsuenak berriz, Babilonia izan da.



25.000 ale saldu dira eta hori ez da batere normala. Hemengo gaia da eta nik uste dut horrek ere eragina izan duela liburuak izan duen arrakastan.

• **Jendeari asko gustatu zaio “Babilonia” antza. Nolako esperientzia izan zen liburu hori idaztea?**

Nik beti esan izan dut, “Poliedroaren hostoak” idatzi ez banu ez nuela “Babilonia” idatziko eta hori liburu guztiekin gertatu zait.

Bi urte behar izan nituen liburua idazteko. Lehena idazten eta bigarrena jazen edo azken ikutuak ematen. Idazketa nahiko erraza egin zitzaidan. Hala ere, ez nekien liburua nola bukatu eta amets bat izan nuen. Hori

bizitzan behin bakarrik gertatu zait.

• **Beste idazle baten zein liburu gomendatuko zeniguke?**

Juan Mari Lekuonaren “Muga beroak” poesia liburua. Oso liburu ederra da. Beti pixkat aparte egon den idazlea da eta protagonismo apur bat eman nahi nioke.

• **Non eta nola idazteko ohitura duzu?**

Nere gelan idazten dut, batzutan Ezkaraira ere joaten naiz. Orain gutxi arte dena eskuz idazten nuen. Gero eskuz eta bigarren bertsioa ordenadorez idaztera pasatu nintzen eta orain zuzenean ordenadorez idazten dut. Goiz eta arratsaldez idazteko ohitura daukat.

• **Gaur egun Euskal**

Herri mailan idazten eta produzitzen denaren artean, maila onean gaudela esan daiteke?

Bai, gaur egun asko produzitzen da eta harro egoteko moduan gaude, baina ez harrokeriaz. Urte batzutatik ona bai kalitatez eta baita kuantitatez ere salto handia egon da euskarazko literatura idatzian.

• **Eta idazle bat bizi daiteke idaztetik bakarrik?**

Hori oso zaila da, ia ezinezkoa. Gure merkatua oso mugatua eta txikia da eta horrek eragin handia du euskarazko literaturan. Gutxi batzuk bakarrik dugu pribilegio hori. Gaur egun idazle gehienek beste lan bat izaten dute idaztetik aparte.

• **Zer behar da idazle ona izateko?**

Bereziki asko irakurri behar da. Beste idazle batzuetatik ere ikasi beharra dago baina, beti ere, haien gainetik egon behar da, hau da, besteen ideiak zure mundura txertatu.

• **Momentu honetan zein proiektua duzu buruan?**

Aurreko mende batean oinarritutako liburu bat idatzi nahi dut. Dagoeneko hasi naiz informazioa batzen. Euskal Herriko historian ez dut informazio gehiegi topatu, espainiar liburuak irakurri ditut. Lan honek hiru bat urte eramango dit.

Oraingo artikulu honetan ere, oso ezaguna dugun hegazti bati buruz hitzegitera noa. Hegazti berezia dugu KUKUA, bere kantua ezagutzen erraza bada ere, animalia bera ikusten oso zaila izaki. Agertzen duen ugalketa modua ere zeharo harrigarria da.

Taldea: Hegaztiak

Familia: Cuculidae

Izen zientifikoa: *Cuculus canorus*

Beste euskal izenik: cuco, cuckoo, coqu...

Luzera: 34 zm

Pisua: 180 gr

Lezkaria kuku-kumea elikatzen



Kukurik entzun duzue aurten?

Hegazti dexente haundia dugu kukua. Erabat grisa den lumaian hainbat ttantta zuri nabari ditu. Paparra bizkarra eta hegoak baino argiagoa du. Intsektu, larba eta sugandilarek betetzen dute bere elikaduraren proportzio haundiena.

Sarreran esan bezala bera ikustea benetan zaila bada ere, bere kantua berehala ezagutzen da. Gure mendietan ere duela gutxi aditu ahal izan da aurtengo udaberri ero honetan lehenengoz, eta badakizue zer dioen kondairak: kukua lehenengo aldiz entzuterakoan poltsikoan dirurik baduzu, urte osoan ere edukiko duzula. Badakizue beraz, oraindik kukurik entzun ez baduzue, poltsikoak ondo beteta joan zaitezte mendialdera.

Ugalketa ziklo bitxia

Bizidunetan ageri den ugalketa estrategien aniztasuna aipagarria bada ere, berezietakoa kukuarena

dela esan daiteke. Hegazti bizkarroia dela esaten da, eta benetan hala da, izan ere beste hegazti bat arduratzen da kuku-kumea elikatzeaz eta beronen heziketaz.

Kukuaren joera hau aspaldidanik ezagutzen da, Aristotelek berak ere aipatua bait zuen duela 2300 urte. Denbora luze horretan hainbat ikerketa egin dira hegazti bitxi honen inguruan. Kuku emeak bere ostalaria izango den txoriak ipintzen dituen antzerako arraultzeak egiten ditu eta bestearen kabinan uzten ditu amaordeari bere kumea dela sinistarazteko. European 100 ostalaritik gora zenbatu zaizkio kukuari, arruntenak hurrengoak izanik: txepetxa, txantxangorria, lezkariak, buztanikarak, tuntuna, negu-txirta eta buztangorria.

Eboluzioaren bidea kontutan izanik, kuku eme bakoitzak arraultze mota bakarra errun dezake, bera


txikitan jaso zuen ostalariaren arraultzeen antzekoa, beraz berak ere txori espezie bera bilatu beharko du bere arraultzea habia egokian utziko badu.

Behin habia aukeratu eta arraultzea bertan ipini denean, ostalariak bere arraultzeekin batera errungo du berria. Kuku kumea ordea besteak baino egun pare bat lehenago jaioko da eta oraindik itsu, inguruko arraultzeak habitik kanpora botako ditu. Konpetentziarik gabe, oso azkar haziko da, laster bere ostalariaren tamaina nabarmen gaudituko duelarik. Bitartean, bere benetako ama kantuan arituko da etengabe, bikote berriaren bila.

Mikel Arroiabe

Kontxi Otxoa: 35 urte esnea saltzen

Gaiartza auzoan bizi den Kontxi Otxoa orain dela 35 urte hasi zen esnesaltzen. Hiru litroekin hasi bazen ere, gaur egun 10 behiren jabe da eta 100 litro inguru banatzen ditu egunero. “Denborak majo aldatu dira urte hauetan”, hasieran bi astorekin hasi baitzen kalera esnea eramaten.




Hasieran goiko baserri batera ateratzen zuen esnea, baina hiru litro hartuta kalera joaten hasi zen. Biderik ez zegoenez, bi astorekin jeisten zuen esnea, “hura oso lan txarra zen”-gogoratzen du Kontxik. Zaloñaraino bidea egin zutenean, handik Renault 4 bateaz hasi zen esnea eramaten eta poliki-poliki gero eta esne gehiagorekin jarraituz. Erreztasuna bidea etxeraino heldu zitzaizenean izan zuen. Gaur egun hamar behi ditu, “esnesaltzeaz gain, etxean ere lan ugari ematen dute behi hauek”. Udaran, gainera, beste eginbehar bat gehitzen zaio: bedarra batzea.

“Lanbide honek ez du jai egunik errespetatzen, ezta oporrik ere, konstantzia haundiko lana da”

Jairik gabeko lanbidea

Lanbide honek ez du jai egunik errespetatzen, ezta oporrik ere, konstantzia haundiko lana da. “Behiak egunean bi aldiz batzen ditut, eta jakina, egunero eginbeharreko lana da hau”. Eta ez hori bakarrik behiak batzeko orduak ere zaindu egin behar direla gehitzen du Kontxik.

Goizean jaiki, iratzartzeko kafea egin, trasteak gertatu eta behiak batzen ditu. Ondoren esne saltzeari ekiten dio eta etxera bueltatzeko, eguerdiko ordu batean, lan berari ebatu behar ostera. Iharduera honetan garbitasuna oso garrantzitsua da eta hau oso neketsua ei



Sisternari esker zentralera eraman behar den esnea lau egunetan ere kontserba daiteke

da, eginbeharrik latzenetarikoa Kontxiren esanetan.

Kontxi Otxoak urrin ikusten du bere jubilazioa, jubilaziora heltzeko esperantzarik ere ez du. "Jubilatuta gero ere, esne asko hartzen dutenei esnea eramaten jarraituko dut" nahiz eta kaleko esnesaltzea ez egin. Bere lanari fidela izan zaio; 35 urte hauetan gaixotu ere ez da egin.

**“Kalera ordu
estrategiko
batean joan
beharra dago”**

Kaleko bezeroak

Eguneroko 100 litroak Aretxabaleta eta Arrasaten banatzen ditu. Bi herrietan salmenta sistema desberdinak erabiltzen ditu; Aretxabaletan, etxeetara eramaten du eta Arrasaten, berriz, bozina jo eta kalean saltzen du. Gure herrian etxean bezala ibiltzen da: "hemen-go jendearekin harreman handiagoa daukat, etxe askotako giltza ere badaukat". Honek ere badauka bere alde txarra, denbora gehiago behar baita, kaleko salmentarekin konparatuz denbora bikoitza. Hala ere, kaleko salmentan ez da beti esne kopuru bera saltzen, ez baitira eguneroko bezero fijoak.


Kalera ordu estrategikoetan joan beharra dago, 12ak inguruan ateratzen da etxetik. Fabriketarako jendea ordubatak inguruan ateratzen da eta "bezeroak ez du norbera bilatu behar, norberak bezeroa baizik".

Asteko egunik gogorrena zapatua da eta hau negu partean gehiago igartzen da, uda aldean esne gutxiago saltzen baita.

Alternatiba: esne zentralak

Jendearen gorabehereri aurre egiteko alternatiba bat bilatu beharra dago: esne zentralak. Asko kostatako esnea da eta sobratzen dena ezin da bota. "Egoera honen aurrean esne zentralak estuasunetik irtetzen laguntzen du, nahiz eta esnea erdi prezioan saldu beharra izan".

Eguraldi ona edo txarra egoteak ere badu eraginik esne kopuruan. Horregatik batzutan faltan edo sobran izaten da. Sisternari esker,




ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Zigarrola, 1 8. pabiloia
ARRASATE Tfnoa: 77 11 30

◆ Parrila
espezialitatea



GOYARAN ERRETEGJA

Solohaundi-8 ARETXABALETA ☎ 79 68 57

zentralera eraman behar den esnea lau egunetan ere kontserba daiteke. “Zentralekoek ez dute sisternetan egon bako esnerik onartzen”.

Orain 10 urte hasi zen sistema honekin lanean. “Modu honetan ez da esnerik galtzen”-azpimarratzen du. Orain 8-10 urte zentrolean 48 pta ordaintzen zuten esne litroa, gaur egun, aldiz, 42 pta. Atzerakada hau bizimailak egin duen gorakadaz konparatzen du.

Lehenago gaztak egiten zituen sobratutako esneaz, baina hau lan nekezagoa zen, kontserbazio prozesu zehatza behar baitute gaztaiek. Orain Marietara eramaten du esnea gauean eta hurrengo egunean zentralekoek jasotzen dute.

Lehen, beheko bidetik pasatzen zen beste zentral bati eramaten zion esnea, baina haiek minimo bat eskatzen zuten, kontrato bat bezala zen.

“Esnestaltzean ez dago etorkizunik, lanbide hau bukatu egingo da”

Zentraletarako ere esnearen garbitasuna oso garrantzitsua da. Baremo bat erabiltzen dute, esneak zerbait txarra badu 5 pta kentzen dute litroko esne kalitatearen arabera.

Etorkizun beltza

“Esnestaltzean ez dago etorkizunik”, lanbide hau bukatu egingo dela dio Kontxik. “Kate bat da, harategietan txahalik ez da saltzen, beraz, etxetik ezin dira kendu eta txahalik gabe, egia esan, ez dago esnerik”. Txahalak eginda ere, bi hilabetetan zehar gutxienez esnea eman behar zaie kendu ahal izateko. Bi hilabete horietan egunean 10 litro kontsumitzen dute txahalek.

Gaur egungo gizartean kaleko esnea oso sartuta dago. Medikuek ere, lehenengo gauza baserriko esnea kentzen dute. Baserrikoa beti hartu duenak bakarrik estimatzen du.

Lan hau ezin da bakarrik eraman, “laguntasuna behar izaten dut”. Baina soldatak ordaintzen hasiz gero ezinezkoa litzateke honetan aritzea. Albaitaria eta botikak ordaindu behar dira eta ez dago inongo segururik. “Suposatzen duen loturagatik eta garbitasun nekezagatik, utzi du jendeak lanbide hau”. Bere etxean ere ez du jarraitzailerik ikusten Kontxik eta gustatu ere ez litzaioke egingo lanbidea jarraituko duen inor etxean izatea.

Jennifer Nelson
Amaia Murgiondo



“Behiak egunean bi aldiz batzen ditut”

BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta
mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

OSKAR GARAJEA


Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

KIXKOR TABERNA

Mitarte 13 ☎ 79 20 60
Aretxabaleta

3. atala

Itsaso haserre
dago antzerkian
bere mutila
Nahiaren
antzezlari
bikotea delako.
Beraz, tira-
birak areagotu
egin dira.
Gainera,
badirudi,
lapurketa bat
egon dela.





Monika! Monika! konpasa
lapurtu didate.



Nor izan da!?

Esan ezazue, mesedez, nor izan
den Gorkaren konpasa lapurtu
duena.





Nahia, zu izan al zara?



Nik ez dut ezer lapurtu!!



Ez dut uste Nahia izan denik konpasa lapurtu duena.


Zer nahi
duzu, Edurne?



Monika, Nahia izan da konpasa ostu
duena. Aurrekoan esan zidan.



Zer????




15 egun barru azkenengo atala.

**Piraguismoko
monitoreak sortzeko
ikastaroa**

Gipuzkoako piraguismo Federakundeak piraguismoko monitore ikastaroa antolatu du. Maiatzaren 23, 24, eta 25ean zehar emango da Donostian. Titulua lortzen dutenen artean, Urkulun udan haurrentzat antolatutako diren kurtsoetan klaseak emateko monitoreak aukeratuko dira. Gainera, hauen artean Murruxok emango duen dirulaguntza bat banatu ahal izango da. Ikastaro honetan izena emateko beharrezkoa da Murruxok M. E.ko bazkide izatea eta 17 urte baino gehiago edukitzea. Honez gain, aurtengo Piraguismo Federazioko karneta edukitzea ere eskatzen da. Izena ematerakoan eskaera orria bete beharko da eta 20.000 pezeta ordaindu. Ikastaroan izena emateko eta informazio gehiagorako Murruxok M. E.ra edo kultur etxera joan daiteke. Plazak mugatuak dira eta maiatzaren 15a izena emateko azken eguna da.

Udaberriko 1.go Pala txapelketa

Udaberriko pala txapelketa aurrera doa eta dagoeneko seigarren ihardunaldira heldu da, hau da, txapelketaren erdira. Txapelketako sailkapeneko buruan, Antxia-Madinabeitia ditugu Agirre-Uribetxeberriarekin batera. Lau garaipen lortu dituzte aurreko bi bikoteek eta partidu bakarra galdu dute. Hauen atzetik Sarasua-Sarasua eta Jausoro-Oskoz daude klasifikazioan, hauek bi partidu galdu dituzte. Txapelketa nahiko berdindurik dago, tanteoak oso hestuek baitira. Gogoratu pala txapelketa San Juanetan bukatuko dela, eta egun horretan jokatuko dira finala eta 3. eta 4. postua. Hurrengo ihardunaldia, zazpigarrena hain zuzen ere, datorren astebukaeran jokatuko da: zapatu goiz eta arratsaldean eta domeka goizean. Aste



bukaera honetako parekatzeak honako hauek dira: Fernandez/Iturbe-Aldai/Txantxiku; Sarasua/Bengoia-Garcia/Iturricastillo; Lanzos/Arana-Sarasua/Sarasua; Jausoro/Oskoz-Agirre/Uribetxeberria; Fernandez/Iturbe-Sarasua/Bengoia; Aldai/Txantxiku-Zugasti/Berasaluze; Sarasua/Bengoia-Unanue/Urure-Madinabeitia/Antxia-Aldai/Txantxiku; Unanue/Urure-Zugasti/Berasaluze.

**Iñurrategi anaiek datorren zapatuan
irtengo dira Pakistan aldera**

Maiatzaren 10ean, Broad Peak (8.047 m.) mendia igotzeko helburuaz Pakistanera abiatuko dira Felix eta Alberto Iñurrategi. Dena ondo joan ezker, hilabete inguruko ekipamendu lana egingo dute eta ekaina bukaera eta uztaila hasieran saiatuko dira

tontorra egiten. Bide normala hegoaldeko dagoen arren, Iñurrategi anaiek bide berri bat zabaltzeko asmoa dute hegoaldeko ertzetik. Jeitsiera berri, bide normaletik izango da. Zortetik onena espedizio berri.

**Aretxabaletako
industrialdea, S.A.**

“ARINSA”

Basabe poligonoa “EO-10”
Tfnoa: 79 62 80
ARETXABALETA

**Dorleta
Taberna**

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

**IMANOL
JANARI DENDA**

Harategia
BEREZIKI Urdaitegia
Fruitategia

Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABALETA

BR Amaia-Berri, S. L.

Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

81 partehartzaile Otala-zelaiko krossean

□ **Kamel Zianik Jose Apalanzaren errekorra gainditu zuen. Jose Apalanzak 40'59" ezarritako errekorra 30 segundu jeistea lortu zuen.**

Eguraldi beroa egin zuen maiatzaren 4an ospatu zen Otala-zelaiko krossean. Guztira 81 korrikalarik hartu zuten parte eta horietatik 71k bukatu zuten proba. Seniorretan 37 partehartzaile; emakumeetan 10; beteranoetan 30 partehartzaile eta juniorretan 4 besterik ez.

Kamel Ziani izan genuen irabazlea eta honek Jose Apalanzak 1994. urtean

40'59"tan ezarritako errekorra 40'29"ra jeistea lortu zuen.

Seniorretan lehen atxabaltarra Joseba Larrinaga izan zen, 46'30"ko denbora egin zuen. Beteranoetan Pedro Azkargorta izan zen herriko lehena, 26'55"ko denborarekin. Emakumeetan berriz, ez genuen atxabaltzarordekaririk izan, eta juniorretan Igor Dublan bigarren sailkatu zen.



Kamel Zianik Jose Apalanzaren errekorra apurtu zuen



Lehenengo hiru emakume sailkatuak, horien artean M. Luisa Irizar irabazlea

MARIA LUISA IRIZAR **"Ibilbide luzeagoko probak gehiago gustatzen zaizkit"**



Otala-zelaiko krossean lehenengo aldiz parte hartu du aurten Maria Luisa Irizarrek. Andoainen jaioa, gaur egun Aian bizi da 33 urtetako korrikalari hau.

Klasifikazioak:

Senior:

1.- Kamel Ziani	Orio	40'29"27
2.- Xabier Iturralde	Azpeitia	42'37"54
3.- Santi Gomez	Zumarraga	42'51"23
4.- Manu Hurtado	Azpeitia	43'43"14
* Lehen atxabaltarra: Joseba Larrinaga		46'30"46

Emakumeak:

1.- M. Luisa Irizar	Andoain	23'59"20
2.- Pilar Arriola	Elgoibar	27'50"03
3.- M. Carmen Garcia	Arrasate	28'17"06
4.- M. Jose Gil	Arrasate	28'31"68

Junior:

1.- Felix Sanchez	Oñati	22'34"26
2.- Igor Dublan	Aretxabaleta	23'08"97
3.- Egoitz Arruti	Azpeitia	26'38"96
4.- Koldo Olaizola	Azpeitia	29'35"74
* Lehen atxabaltarra: Igor Dublan		23'08"97

Beteranoak:

1.- Juan Aldai	Eibar	21'15"11
2.- Javier Mentxaka	Arrasate	21'32"00
3.- Enrique Kabiketa	Arrasate	21'33"59
4.- Francisco Andres	Arrasate	22'43"48
* Lehen atxabaltarra: Pedro Azkargorta		26'55"79

Zer iruditu zaizu proba?

Egia esan ibilbideak 13 km. zituela pentsatzen nuen. Niri ibilbide luzeagoak gustatzen zaizkit, baina horrelako proba txikiak ere ondo etortzen dira azkartasuna lantzeko.

Nola joan da proba?

Sorian kontzentrazio batean egon gara eta ona etortritakoan proba hasi aurretik tentsioa jeitsi zait. % 100ean ez naiz egon, baina bueno, nahiko ondo joan da.

Momentu honetan zer gertatzen ari zara?

Ordizian 5.000 metrotan minima atera nuen Espainiako txapelketara joateko, 17'6"tan. Orain 10.000 metrokoa egin nahi dut, hemen ere minima lortzeko asmoz.

Zein da zure probarik gustokoena?

Maratoi erdian ondo ibiltzen naiz, baina marka hobea egiten dut maratoietan. Ibilbide luzeagoetan hobeto moldatzen naiz.



Zamorako Rio Negro del Puente herrian jaio zen Luis Cuesta.

Gaur egun udaletxean lan egiten du. Bere bata urdinarekin sarri ikusi izan dugu kalean lantxoak egiten, mantenimenduko lanak bereziki.

• Nongoa zara?

Zamorakoa, Rio Negro del Puente. Oso herri txikia da, 200 biztanlekoa.

• Nola hasi zinen udaletxean lanean?

Hasiera baten jaietako tablauak... jartzen hasi nintzen. Gero zineko proiektioekin arduratu nintzen. Udale-

“Hamabost urtetan zehar Alemanian bizi izandakoa naiz”

txerako lan asko egin ditut arrezkero, garbitzaile, uren neurketa, mantenimendua...

• Nola etorri zinen Aretxabale-tara?

Hasiera batean Eskoriatzan bizi izan nintzen. Gero Alemaniara joan nintzen eta 15 urte egin nituen bertan. Handik Aretxabale-tara etorri nintzen 1978an.

• Orduan urte asko eman dituzu Alemanian, zer egin zenuen bertan?

Plastiko lantegi batean lan egin nuen.

• Alemana jakingo duzu orduan?

Bai, asko ahaztu zaidan arren, defenditzeko lain badakit.

• Zure semeak Alemanian jaio ziren?

Lehenago biak bai, hirugarrena hemen.

• Nola ikasi zenuen alemana?

Ez nintzen eskolara joan, lantegian eta kalean ikasi nuen.

• Zer gustatu zitzaizun Alemani-
nialtik?

Bertako garbitasuna eta jendearen heziketa. Baina han ez dago jen-

dearekiko hemen dagoen harremana.

• Itzuliko zinake osera Alema-niara?

Ez, emazteak baietz esaten du baina ni ez.

• Zer egiten duzu lanetik irten-dakoan?

Tutean jolastu lagunekin, txikiteoa, pasiatu...

• Nora joango zara oporretan?

Galiziara, familiartekoena.

• Gaztetan juergazalea zinen?

Bai, eta orain ere bai.

• Neska morenak ala ileoriak dituzu gustoko?

Morenak.

• Alemaniarrak ala euskal-dunak?

Hemengoak.

• Zer du polita udaberriak?

Paisaiaren berdetasuna, eguzkiaren argitasuna...

• Non egin zenuen soldaduzka?

Zaragozan.

• Ze lan egiten duzu etxean?

Bazkaria egiten lagundu eta fregaua.

• Zein plato goxo egingo zeni-guke?

Okela gisaua patatekin.

Nerea Euskerajatorregi-ren ibilerak



Marrazkiak: Mikel Arroiabe

loramendi
eusquera elkartea



F

erriko 53 gaztetxok euren lehen jaunartzea egingo dute maiatzean zehar.

Argazkiko neska-mutilak ere, katekesi klaseen ondoren, gertu zeuden euren lehen jaunartzea egiteko. Eta hortxe harrapatu zituen argazkilaria denak dotore-dotore jantzita, eta ondo gordetako iladetan. Goian mutilak, batzuk "marinerito" jantzita. Beheko bi hiladetan, berriz, neskak, mantila buruan eta zein baino zein politago. Erretratuko gehienek errosarioa dute eskuartean eta baita meza liburua ere.

Ez dira denak adin berekoak, urte batzuk gora-behera hortxe ibiliko dira. Gaur egun 59 urte inguru dituzte erretratukoek, argazkian berriz, 8 urte. Beraz, 1946. urte ingurukoa dugu argazkia.

Goian ezkerretik eskumara: **Jesus Mari Santa Marina, Jesus Mari Zuazua, X, Jesus Mari Isasmendi, Javier Zabala, X, Txintxurreta.**

Erdian: **Ana Mari Arenaza, X, Marina Perez de Mendiguren, X, Fuencisla Aranda, M. Jesus Gastañaga.**

Behean: **Pili Urzelai, Nati Barandiaran, Pili Lasagabaster, M. Rosario Diaz de Gereñu, Pili Intxauspe.**

Argazkia: Arantzazu Zuazabeitia



**LASA
AGUILERA**
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3
☎ 79 29 26

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA

Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57



SEGUROS LAGUN ARO
ASEGURUAK

Euskadiko Kutxa
Taldekoa

Errekabarren, 20 behea
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

Mitartegarai
Jatetxea

- Nekazaluturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51
ARETXABALETA



Lurrindegia
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

LEIBATZ
ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA

Jaiak 97



Bai badakit hau ETBko programa bat dela, eta akaso orain arte ez zuten lan handirik izango baina hemendik aurrera izango dute bai non aukeratu.

Joan den astean adibidez, Gasteizera joan ziren San Prudentzio jaietara eta bertan **Jose Ramon Elgoro** harrapatu zuten tinbalak jotzen "El Ciegoko Dultzaineroekin".

Kamararekin edo mikroarekin astebukaeretan ikusiko dugun beste bat **Unai Loidi** da. Unai Arkon hasi da lanean astebukaeretan eta Leioan ari da kazetaritza ikasten.

Telebista ez, baina irratia egon zen joan den zapatuan Atxabaltan, "Herriz-herri" saioa hain zuzen ere. Programa bukaeran galdera batzuk egin zituzten eta zuzen erantzuteagatik **Miren Zuazabeitiak** eta **Nerea Aran**ak liburu sorta bana irabazi zuten.

Liburuekin jarraituz **Xabier Altubek** Urrietako Udalak antolatutako On Manuel Antonio Antia I. go

saria irabazi zuen 14 urtetik gorakoetan. Saria 200.000 pezetakoa izan zen. Duda barik, ondo ospatzeko modukoa.

Kulturatik kirolera pasatuz, esan behar da, manomanista finaleko atarian gaudenean, Atxabaltan ere baditugula promesa gazteak. **Oihana Mata** eta **Haritz Kortabarria** alebin mailako eskolarterako txapelketan Deba Garaiko txapeldun geratu dira. Orain Gipuzkoa mailan jokatu beharko dute.

Joan zen domekan Otxala-zelaiko krossa korritu zen eta bertan Kamel Ziani oriotarrak marka berria jarri zuen. Nagusia bano lehenago gaztetxoaren proba burutu zen. Azken honetan honela gelditu zen sailkapena: Benjamin-neskak: 1. **Maialen Iturbe**; 2. **Zuriñe Pagaldai** eta 3. **Irati Gomez**. Benjamin-mutilak: 1. **Jabi Morales**; 2. **Ander Perez** eta 3. **Garikoitz Dublan**. Alebin neskek: 1. **Marina Arregi**; 2. **Ana Etxaniz**. Alebin mutilak: 1. **Mikel Gallastegi**; 2. **Ion Mendiola** eta 3. **Eloy Crespo**. Infantil neskek: 1. **Nuria Revuelta**; 2. **Sandra Barato**; 3. **Ane Agirrezabalaga**. Infantil mutilak: 1. **Rafael Jimenez**; 2. **Mikel Remedios** eta 3. **Joseba Gabilondo**.

Kirolez aldatuz, datorren zapatuan bertan irtengo dira **Iñurrategi anaiak** Pakistan aldera. Broad Peak mendia ekainaren bukaera aldera igotzeko asmoa dute. Hego-ekialdeko aristatik bide berri bat zabaltzeko intentzinoaz doaz. Zortetik onena eurentzat.

Eta jaiak besterik ez ditugun hilabete honetan ez ahaztu datorren domekan Herri Urrats ospatzen dela eta hurrengo astebukaeran Euskararen eguna eta Otxala zelai eguna.

A R E T X A Z O K A

LANA

- Mendiolako soziedadea garbitzeko pertsona bat behar da. Tfnoa: 79 33 48 (ilunkaran deitu).
- Umeak zaintzeko emakume bat behar da. Tfnoa: 79 00 14 (deitu 7etatik aurrera).
- Magisteritzan diplomatuak klase partikularrak emango lituzke (BO2 arte). Tfnoa: 79 75 23.

ETXEBIZITZA

- Garajea alokagai dago Lausita 5. zenbakian. Tfnoa: 79 05 38 (dendako ordutegia).
- Garajea salgai dago Lausitan. Tfnoa: 79 80 72. Deitu ordu 2etatik 6etara.
- Aretxabaletan lokal konpartitua salgai. Tfnoa: 79 46 20.
- Garaje bat behar dut Portasolen. Telefonoa: 77 00 62.

DENETARIK

- Remolkea salgai. JB-150 modelo. Soporte eta aldatzeko erruerekin. Berria da, ezin izan dugu erabili. Oso prezio egokia. 79 81 78.
- Bizikleta bat (paseokoa) emateko daukat. Egoera onean. Tfnoa: 77 01 74 (Gauetz).
- Kanping denda salgai. 3 logela, sarrera eta aterpea. Harremanetarako deitu 77 11 45 telefonora.

- Aterkina galdu nuen apirilaren 30ean Korueta inguruan. Aurkitu duenak deitu 79 75 53 telefonora.
- Eguzkitarako betaurreko graduatuak galdu zaizkit. Norbaitek aurkituko babilu, mesedez Aretxagazetako bulegora eraman ditzala edo 79 40 09 telefonora deitu. (Ilunkaran).

Orrialde honetako iragarkiak dohainik dira. Testua idatzi eta bidali kultur etxean dagoen buzoira edo 151 postakutxatilara edo eta deitu 79 01 05 telefonora.




Zineak datorren udazkenerarte agur esan digu. Orain artean zineko emanaldien berri izan duzue txoko honetan baina aurrerantzean denborapasei tartetxo bat eskainiko diegu. Goza ezazue bada ahalik eta gehien ondorengo denborapasekin.

HITZ GEZIDUNAK

	Erretokia	Ez aurre	Baita	Dago
	Abeslaria	Higundu	Ete-sarrera	Bizk., iratzte
	Zoko			Gerririk eza
	Apur bat bustia			Lehenengo biak Alkohol bukoera
Altxoan	*Izena	Plural bukoera	Letra grekoa	Bokala
Gaitare handia	Irristatu	Latinezko preposizioa	Metalmota	Enda
		Trebeak		
		Ez gezurra		
Galde egina			Musika nota	
Barik		...egin adaratu	Modua	Bizk., omen
		Evenplu	Esan ezak	
Trankil			Deialdea	Borabila
Dazenerdi			Amodioaren jainkosa	
	*Deitura			[Errep.] txori-mota
	Bokala			Italiako telebista
Anoia, hitz-elkarketan		Hegazti poetikoa		Itzulia
Anoiera, "The..."		Amas-gabetua		
	Binako multzotan			Boraa
	Minus			Daukan
Ukatzeko	Ikutu		Modu-atzikia	Zezen irendu
	Zer			Islandiako autoetan
	Esnea xurgatu			H ₂ O
	Sufrea	E D O S K I		Uranioa
Haurren lehen janaria		Mulla		

HABE

JEROGLIKOA



Gazteluaren inguruan

HABE

Liburutegiko txokoa



Gauak eta hiriak

Idazlea:
Ur Apalategi Idirin
Argitaletxea:
Elkar, 1997

Baionako idazle gazte honen lehen eleberria duzu hau. Hiru gazte eta hiru hiri dira eleberrin honetan protagonista eta heziketa sentimental bat bezala eratua dago. Hiru gazte hauen artean sortuko diren harremanek maitasuna, adiskidetasuna, gorrotoa eta beste sentimendu askoren nahasmena ekarriko dute, gure gaurko gazteen sentimenduei errepaso erreflexibo sakona eginez. Honetaz gain euskal kultura, politika eta literaturaren azterketa ere egiten du Apalategik, erreflexiorako bidea emanez. Liburu hau euskal literaturak azken aldiaren eman duen obra garrantzitsuenetarikoa bihurtuko da zihur, literatura lan handia izateaz gain irakurlea engantxatzen duten horietako baita.

Joseba Lopez de Armentia

**EXPRESS
AKEITEGIA**

Santa Kurtz, 16
Tfnoa: 79 23 43

G U R E A

*taberna
jatetxea*

Durana kalea
Tfnoa: 79 20 64

**IBARRA
ESTANKOA**



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

**Mobiliario
ARENAZA**

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia,1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABALETA

MAIATZA

8
eguna

DIPOSITIBA EMANALDIA

GAIA: SAHARAKO
KANPAMENTUA

Emalea: Alberto Elkorobarrutia
Loramendi elkartearen arratsaldeko
7etan.

10
zapatua

ESKORIATZAKO JOSE ARANA

IKASTOLAk 27. urteurrena
ZILLARREZKO EZTEIAK

Eskoriatzako Jose Arana ikastolak
zillarrezko ezteiak ospatuko ditu eta
hori dela eta hainbat ekintza antolatuko
dira: 10,30etan **FERIXIE** herriko
plazan. Eskoriatza eta Gatzagako
baserriko produktuak, Eskoriatza eta
inguruetak artisautza eta talo,
txorizo eta sagardo dastaketa egongo
da bertan.

11etan haurrentzako jokuak eta

GAZTELU PUZGARRIAK
ikastolan eta **TXAKURLERAK**

Santa Ana auzoan.

Eguerdiko 12etan, **GOROSARRI**

DANTZA taldearen emanaldia
plazan.

2,30etan **HERRI BAZKARIA**

herriko frontoian. Ondoren
bertsolariak, ezustekoak, dantza...

6etan **pailasoak** ikastolan.

9,30etan **ETZAKIT** taldearekin
dantzaldia herriko plazan.

10
zapatua

DANTZA IKUSKIZUNA

"LANONIMA IMPERIAL" dantza
ikuskitzuna Arrasateko Amaia
antzokian 20,00etan. Sarrera 800
pezeta, gazte txartelarekin 600 pta.

11
domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Arlaban-Landa-Arroiabe-
Durana-Gasteiz-Elorriaga-Dulantzi-
Gereñu-Agurain-Gordoa-Narbaxa-
Landa-Aretxabaleta. 98 km.

17
zapatua

EUSKARAREN EGUNA

18
domeka

OTALA-ZELAI EGUNA

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Elgoibar-Pto. Nuevo
tunel-Azkoitia-Zumarraga-Udana-
Oñati-Aretxabaleta. 94 Km.

MENDI IRTEERA

Murruxio M.E.aren irteera **ORKA-
TZATEGIRA**. Irteera ordua 9etan
partenoitik. Ondoren Ojala-zelaira.


OPEL

■ *Kotxe marka guztien
konponketak*

■ *Zerbitzu guztiak*

Garaje T. NORTE, S.L.

Zerbitzu Ofiziala



Basabe Poligonoa, A-1-3 • Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 / Fax: 79 62 65 • ARETXABALETA

ikastaroak

erakusketak



BEHARREZKO TELEFONOAK

EMAKUMEENDAKO MUS IKASTAROA

Maiatzaren 13tik 29ra martizen eta eguenetan. Arratsaldeko 6,30etatik 8etara Loramendiren lokalean. Emalea: Ana Bolinaga. Ordaina 500 pezeta. Apuntatzeko Arlutz eta Urbaltz tarbarnetan edo Loramendi elkarte.

HERRI URRATS

HERRI URRATSEko CDak salgai Arlutz tabernan edo Loramendi elkarte. Prezioa: 250 pta.

EUSKARAREN EGUNA ETA OTALA-ZELAI EGUNA

Maiatzaren 17an **EUSKARAREN EGUNA** ospatuko da. Egun osoan zehar hainbat ekitaldi egongo dira. Domekan, berriz, **OTALA-ZELAI EGUNA** dela eta, erromeria egingo da Ojala-zelain. Udaletxeko kultura sailak mahaiak jarriko ditu bertan bazkaldu ahal izateko.



FERIXIE

Eskoriatzako Jose Arana ikastolaren zilarrezko ezteiak ospatzeko Ferixie Eskoriatzako plazan. Maiatzaren 10ean goizeko 10,30etatik aurrera. Eskoriatza eta Gatzagakako baserri produktuak eta artisautza.

ERAKUSKETA

Eskoriatzako Jose Arana ikastolaren zilarrezko ezteiak ospatzeko, **erakusketak** Eskoriatzako kultur aretoan maiatzaren 9, 10 eta 11n. Ikastolaren historia argazkietan, haur, gazte eta gurasoen artelanak.

OHARRA:

Euskararen egunean, maiatzaren 17an, kanpai jotze mota desberdinen ekitaldia egingo da eguerdiko 12etan: su kanpaiak, hil kanpaiak... Hori dela eta, inork ez dezala sustorik hartu. Loramendi elkarteak kaleratutako egitarauan kanpai jotze mota desberdinen zerrenda etorriko da, harretaz irakurri.



Aretxabaleta

• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Euskaltegia	79 21 68
• Postetxea	79 28 31
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Kiroletxea	79 64 61
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Basotxo	77 09 81
• Urats Gain	79 99 11
• Osasun zentroa	79 74 58
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Liburutegia	79 10 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• ALMEN	71 49 64
• Otorora	79 79 99
• Ludoteka	79 05 81
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Aretxagazeta	79 01 05

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitala (Arrasate)	79 53 00
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• Renfe (Gasteiz)	23 20 30
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• SOS Deiak	088



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8 Aralar z/g
Tfnoa: 79 19 34 Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK


LOGELETAN espezializatutako merkatal zentrua

47 urteko esperientzia duten profesionalak sortu eta zuzendutakoa



Araba Etorbidea, 5
(ESKATU Pabiloia,
San Andres auzoa)
Tfnoa. FAXA: 79 41 82
ARRASATE

Larunbat
arratsaldetan
zabalik!!



Dena ETXEMOBELen. Batetik, kalitate eta diseinu handieneko logelak,
garantia osoarekin. Bestetik, logela merkeen artean merkeenak.

BENETAN HARRIGARRIA!!